

ERREENTERIA

Herritarrek uste baino kutsadura gutxiago

Miguel Angel Barrero kimika irakasleak egin duen tesiaren arabera Erreenteriako kutsadura maila baxua da, eta batez ere autoen zirkulazioak eragindakoa da eta ez industriak

Erreenterian arnasten den airearen garbitasuna Oiartzun ibaiko uren gardentasunaren parekoa delaren ustea oso zabaldua dago herritarren artean aspalditik. XX. mendeko industri garapen bortitzak herria zikinleriaren paradigma eta tenplu bihurtu zuelakoan daude asko eta asko. Hori gezurra dela esaterik ez bada ere, gehiegizkoa behintzat bada. Eta hori adierazteko, lasaitasuna eta baikortasuna zabaltzeko, zientzia orojakileek azaldu dutena aipatu behar Erreenteria-Oreretako atmosferan topa daitezkeen kutsadura mailak ertain-baxuak direla.

Horrela dio *Estudio de composición orgánica natural y contaminante de los aerosoles urbanos y su variabilidad temporal* izenburupean egin den tesiak. Miguel Angel Barrero kimika irakasleak zuzendu du tesia.

Udalak eskatutua Erreenteria-Oreretako atmosfera aztertzen ibili da 1996tik 1999ra eguratsen aurki daitezkeen aerosolen osagaiak sakonki analizatuz.

Azterketa guztien emaitzaren arabera, esan bezela kutsadura baxua da, eta gainera atmosferan eragin handiena duen elementua

autoen zirkulazioa da. Elementu honek industriak sortzen duen kutsadura estaltzen du; hau da, industriek atmosferara botatzen dituztenak ezin izan dira aztertu, autoek sortzen duten zikinkeria nagusi baita eguratsean. Autoaren neurrigabeko erabilerak ekoizpen industrialak baino gehiago kutsatzen duela dirudi beraz.

Halaber, azterketa 1996tik 1999ra bitartean egin zela hartu behar da kontuan, hau da, N-1 errepidea herriaren erditik



GARI GARIALDE / ARGAZKI PRESS

Erreenteria herria.

pasatzen zenean. Garai horretan Erreenteriako saihesbidea egin gabe zegoen eta herriak zirkulazio kantitate handiagoa jasaten zuen bertako atmosferaren kalterako. Gaur egun beraz, kutsadura oraindik eta baxuagoa dela pentsa daiteke saihesbideari esker

Oiartzun ibaia

Baikortasuna berreskuratzeko beste arrazoietako bat Oiartzun ibaiaren egoera da. Saneamendu lanei esker, azken urteotan kutsadura arazoak gutxitu egin dira ibaiaren azken partean, eta izokina berriz ibaian gora sartzeko aukera sortu da. Baldintza onak aprobetsatuz Foru Aldundiak birpolaketak hasi zituen 2000. urtean, eta horrela izokina berreskuratzeko planari ekin zioten Oiartzun ibaian. Iazko martxoan herriko arrantzale batek lehenengo izokina harpatu zuen..


Miguel Barrero herriko atmosfera aztertzen arituz 1996-99 artean

**bidaide
gogaide**

EUSKAL HERRIKO
MENDI TXANGOEN:

- Datuak
- Ibilbidea
- Jakingarriak

www.Egunkaria.com/bidaide



EUSKARA IKASTEKO
IKASITAKOARI EUSTEKO
DAKIZUNA PRAKTIKATZEKO
BEHAR DUZUN TITULAZIOA LORTZEKO

Euskadi Etorbidea, 61
Tel.: 943 39 33 18
20110 PASAIA

euskal@pasaia.net

ITSAS TRESNAK
ERCIBENGOA

KAIA ALDEA
20110 PASAIA

PINTURAK
JOTUN
TOTAL
LUBRIFIKATZAILEAK

943 39 04 36 - Partk.: 28 54 75
Faxa: 943 40 07 93



IGELTSEMITZA ETA ERAINKUNTZAK

Jabier Aranburu

Seoneko Markesa plaza, 4 - 6.D
20110 PASAIA SAN PEDRO


Tel: 943 39 53 05
Tailerra: 943 39 69 94
Mugk: 608 77 09 82



Biltegia:
Esnabide kalea, 16
Tel.: 943 39 11 06
Faxa: 943 40 07 84

Erakusketa:
Esnabide kalea, 82
Tel.: 943 40 09 14

SAN PEDRO



**KARMENGO AMA
Herri Ikastetxea**

Ulia etorbidea, z/g / Telf.: 943 39 03 71 / Faxa: 943 39 26 59
E-mail: karmengo@euskalnet.net / 20110 TRINTXERPE - PASAIA (Gipuzkoa)

MARIKARMEN

I
L
E
A
P
A
I
N
D
E
G
I
A

Tel.: 943 39 34 74
20110 PASAI SAN PEDRO



Gamon zumardia, 14
20100 ERREENTERIA

DAX Taberna
Urte berri on !!

Euskadi etorbidea, 29
Tel.: 943 39 90 06

TRINTXERPE
20110 PASAI SAN PEDRO